



xa **sencillamente** transformar la realidad



irudia

**Lan gitxiago egin, gitxiago kontsumitu eta hobeto bizi**

## HausNarketa

Krisi ekonomiko zantzitako 4 edo bost urteren ostean, langabezia eta behin-behineko lana herri alde askotan hedatuta dagozan zoritxarrak dira. "Krisiaren aurkako neurriak" ezarri ondoren, langabeziak gora egiten dau eten barik Europar Batasuneko herrialde gehienetan eta datozen urteetako arazo sozial nagusi bihurtuko da. Era berean, Espainian, euro inguruko langabezia-tasarik altuena dauan herrialdean, langileek esate baterako alemanek eta holandarrek baino %20 lanordu gehiago egiten dabe. Lanean diharduanak, orokorrean, ezarritakoak baino ordu gehiago egiten dituala esan daikegu, lan presinoak dirala-eta, kontsumo-maila jakin bat lortzeko, edo beste arrazoi batzuegaitik. Goiburua, "lan asko egin, asko kontsumitzeko eta ongizatea jadesteko" dala emoten dau. Baina...

- *Ze ondorio pertsonal, ekologiko eta sozial dau "hiper-lan" eta "hiper-kontsumo" horrek? Kontsumoa "ondo bizitzera" heltzeko era egokia ete da? Jasagarriak ete dira ekologia eta sozial arloan era honetako ekoizpen eta kontsumoa?*

Batzuek zera susmatzen dabe: gehiegizko kontsumoari lotutako lanaren antolaketa honek irabazi gehiago lortu gura dabezan enpresentzat baino ez dala baliozkoa. Horregaitik, erakunde sozial askoren proposamena lana era honetara antolatzea da: "lan gitxiago egin daigun, danok lan egingo dogu, gitxiago kontsumitu daigun eta denpora gehiago izan daigun bizitzaz beste era batzuetara gozatzeko". Lanaldiaren eta kontsumoaren antolaketa barri honek ondorio pertsonal, sozial, ekologiko, politiko, e.a. garrantzitsuak ekarriko ditu.

Erakunde sozial honeen proposamenaren arabera, lana legez mugatu beharko litzateke asteko 21 ordura. Zifra hau ez da ausazkoa eta bere bideragarritasuna bermatzen daben azterlanak dagoz.

## ekintza

### ZABALDU IDEIA HAU

Astean 21 ordu lan egitearen ideia harrigarria da, baina egindako azterlanen arabera, 15-20 urteko pixkanakako prozesuan posible da, tartean dagozan ekintzaileak –sindikatuak, oberruak, gizartea- konbentzitzea lortu ezkerro. Ez da proposamen inozoa, martxan jarreak ekarri daitekezan aurkakotasunak eta ondorioak kontuan hartu diralako. Dana dala, **ezinbestekoak dira lana banatzeko neurriak**. Horregaitik, ekintza hau proposatzen deusugu:

- proposamen honen (eta antzerako beste batzuen) barri jaso daizula. Ondorengo esteka honeetan aurkitu daikezu informazioa:

[http://www.economiasolidaria.org/noticias/trabajar\\_menos\\_para\\_vivir\\_mejor\\_21\\_horas](http://www.economiasolidaria.org/noticias/trabajar_menos_para_vivir_mejor_21_horas)

[http://www.economiasolidaria.org/documentos/21\\_horas](http://www.economiasolidaria.org/documentos/21_horas)

- ezagutzera emon, eskura dozuzan bideetatik, proposamen hau zure inguruan eta, zehatzago, eztabaidatu honen inguruan eta, ahal badozu, gitxienez lagun bat **konbentzitu lana banatzeko neurrien beharrianaz, langabeziari konponbidea emoteko**.